



Hondakinen gordailu berria

TXURINGO



Jatxetxea

**ZATOZ GURE BODEGAN
DAUKAGUN SAGARDO ETA
ARDO KUPELAK PROBATZERA.**

**HONEKIN BATERA,
SAGARDOTEGIKO MENUA
DASTATZEKO AUKERA
IZANGO DUZU!!!**

SAGARDOTEGI MENUA

- Makailau tortila
- Txuletak, txarrikumea, arkumea...
- Gazta eta intxaurrak

ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA,
ZUBIZARRETA, ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak.

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurdunaldiaren kontrola
- Txekoak
- Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

GUZTI HAU

ARRASATEN

BERTAN,

URRUTIRAGO

JOAN BARIK



Zerkaosketa, 17 behea ARRASATE

Tfnoa: 79 20 18

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tinoa eta Faxe: 76 03 97

Argitaratzailea:
JARDUN Elkarteak.
Masterreka, 13 Bergara.
Tinoa eta Faxe: 76 08 19

Zuzendaria:
Gorka Elorza
Erredakzioa:
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Publizitatea:
Alex Azkarate

Harpidetzak:
Gorka Elorza
Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola
Mariji Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkoroberezibar
Estepan Plazaola
Alex Labaien
Paki Eraña

Komikiak:
Gitor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Banaketa:
Txantxangorri taldea
Tirada:
3.700 ale.

Inprimategia:
Bertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:
BERRIGARA

Lege gordailua:
SS 50/91

ISSN:
1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

EBA ALBERDI Jardun Elkarteko dinamizatzailea

- Zein erantzun izan du Amodiozko Gutunen Lehiaketak?

- Aurreko urtean baino askoz hobea. Iaz 69 karta jaso genituen eta aurten, berriz, 195. Euskal Herri osotik heldu zaizkigu, tartean Iparraldetik ere bai eta herriz ere Gipuzkoatik etorri dira gehienak. Partaideen artean, emakumeak izan dira gehienago eta adinari dagokionez gazteak nagusitzen dira, 15 eta 20 urte bitartekoak. Bergararik, berriz, 24 lagunek parte hartzen dute (iaz 25 izan ziren).

- Sarietan bada nobedaderik...

- Bai, ohiko sariez gain, aurten Irakurlearen Saria ere emango dugu. Ikastetxe ezberdinetako 3 ordezkari izango dira: Ain-



tzane Zubia Miguel Altuna Institutotik, Blanca Cebrián Mariaren Lagunditik eta Aranzadi Ikastolako Edurne Zabalak erabakiko dute eta saria De Zerioeren eskultura bat izango da. Bestalde, gainontzeko sariak erabakitzekeo epaimahaia Amaia Zubiria, Joxean Sagastizabal, Pako Aristi eta Miguel Angel Elkoroberezibarrek osatuko dute.

"Amodiozko Gutunen Lehiaketan iaz baino erantzun hobea jaso dugu"

I T U R R I O N E T I K

IAT-ITV tailer berria otsailaren azkenerako prest

Santalaitzen egin den Ibilgailuen Azterketa Teknikorako tailer berria otsailaren azkenetan zabalduko da ziurrenik.

Oraindik ere tailer barruko zenbait lan amaitzea falta da baina AHT-ITV tailerreko ordezkariak otsaila edota martxoaren lehenengotarako guztia amaituta izango dela adierazi digute. IAT tailerra joan den urteko otsailean zabaldu zen eta ordutik, probisionalki, Saizabal

Autoelektrizitatearen ondoko lokalean egon da. Orainarte 3.500 Kg.tik beherako ibilgailuentzat karril bakarra egon bada ere, tailer berriak 3 karril izango ditu. Bertan era guztietako ibilgailuek izango dute beharrezko azterketa teknikoak egiteko aukera.

E S A N D U T E

"Nire adostasun osoa agertu nahi dut Begoña Garmendiaren jokabidearekin. Eta Jon Urrujulegiri esan, etsaiari jokoa ez diotela egiten astakeria politikoak salatzen dituztenak, hauek asmatzen eta burutzen dituztenak baizik"

J.M. ELEXPURU
Irakasle eta idazlea
EGUNKARIA

"[GALi buruz] Zeintzuk egon daitezke lurrikara "prefabrikatu" honen atzetik? Ni nagoen lekutik ezin dut urrutikoa ondo ikusi baina ez nintzen asko harririk De la Concha, Rubio, De la Rosa, Conde eta beste halako lapurteroak, militar zein segurtasun indarretan deseroso aurkitzen diren beste halako batzuekin bateginik, norbaitek horren atzetik egon daitezkeela esango balit"

JOSE LUIS LOIDI
Preso politikoa
EGIN

"Industria arloak ez du zergatik askoz lanpostu gehiago eduki"

JAVIER RETEGI
Industri sailburua
EGUNKARIA

**EL CUERVO**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**PESADILLA ANTES DE NAVIDAD**

Larunbata: 17.00, 19.30.

**GERMINAL**

Osteguna: 20.00.

Zinea▼▼ **Brandon Lee**

aktorearen (*Rapid fire*) azken filma, errodaian zehar hil baitzen **Bruce Lee** famatuaren semea. Izen bereko komikean oinarrituta, Eric Draven kitarristaren istorioa azaltzen zaigu. *Top Dollaren* bandak akabatu egingo ditu **Eric (Brandon Lee)** eta bere andregaiia. Urtebete pasa ondoren berpiztu eta *Eric*ek mendekua hartu nahi izango du bere etsaiekin...

▼▼ **Tim Burtonek**

(*Bitelchus, Eduardo Manostijeras*) ekoiztutako filme honek kritika zein publikoaren oneritzia jaso du. Bere aurretiko filmeetan bezala, pertsonaia benetan bitxiak aurkezten dizkigu. Gabonen inguruko filme honetan *Halloween* eta *Gabonetako* hirietako bizilagunekin gozatzeko aukera.

▼▼ **Emile Zola** idazlearen nobelan oinarrituta dago frantziar super-produkzio hau. **Gerard Depardieu** protagonista nagusia delarik, Bigarren Inperiko garaian, *Etienne Lantier*ek (**Depardieu**) mehategiko lan egoera kaskarrak, alkoholismoa eta gizakien sufrimendua... edota *Catherinenganako* sentitze duen amodioa ezagutuko du.

Deiak

▼ **Matinala.** Igandean, goizeko 11.30etan, "Junior" Novedades aretoan.

▼ **Gurutze Mujika**ren oleo erakusketa Nahikari tabernan.


▼ **Ikastaroa.** Linguistika aplikatuko ikastaroa UNEDen, martxoaren 7tik maiatzaren 6ra arte. Argibideak 76 13 42 telefonoan.

▼ **Mendi irteera.** Hirumugarrietara otsailaren 12an, 14 urtetik azpikoentzat. Irteera 8.30etan Pesatik. Izen-ematea Pol-Polen astelehenetik ostegunera (19-20.30).

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean, hilak 8, arratsaldeko 7etan Seminarioko baxuetan. Odol Emaleen Elkarteak herritarren kolaborazioa eskatzen du.

Ogia

▼ **Igandea 5:** Konde.

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

▼ **Ostirala 3:** Puy.

▼ **Larunbata 4:** Guallar.

▼ **Igandea 5:** Guallar.

▼ **Astelehena 6:** Estella.

▼ **Asteartea 7:** Mozos.

▼ **Asteazkena 8:** Camacho.

▼ **Osteguna 9:** Puy.

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimera

Uriarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77

Eskulanen erakusketa

Izaskun Saiz eta Edurne Uribesalgoren ikasleen eskulanak ikusgai izango dira Kultur Etxean datorren otsailaren 12ra arte

Datorren otsailaren 12ra arte Izaskun Saiz eta Edurne Uribesalgoren ikasleen eskulan erakusketa ikusi ahal izango da Kultur Etxeko erakusaretoan. Bertan, teknika ezberdinez landutako eskulanak izango dira ikusgai.

Izaskun Saizek berak azaldu digunez, "batez ere pintura rustikoa, oibalean egindakoa, mache papera eta borrelakoak landu dituzte ikasleek. Pertxeroak, errebisteroak, pitxarrak, lanparak eta borrelakoak eginak daude aurretik eta margotzea besterik ez da, mache papera eta pasta ikasleek beraiek egiten duten arren.

Dekorazioarekin zerikusia duten objektuak apaintzen ditugula esan daiteke eta poliuretano eta egurrez eginikoak dira gehienak: errazimua, ispi-luak, markoak poliuretano eta egurrezko lanparak, pertxeroak, edota errebisteroak. Periodiku papera eta kolarekin egindako hartzak eta beste hainbat apaingarri ere egin dituzte; beraz, etxerako oso egoikiak diren apaingarriak ikusi ahal izango dituzue erakusketan".



Era askotako eskulanak ikusi ahal izango ditugu egun hauetan Kultur Etxean. Argazkian Izaskun Saiz eta Edurne Uribesalgo.

Eskulangintza ikastaroak

Guztira 50 bat ikasle ari dira Izaskun eta Edurne arrasatearrekin lanean. Izaskunen hitzetan, "klaseak ikasturte osoan zehar izaten dira. Normalean izena ematen duen jendea ikasturte amaierara arte, ekainera arte izaten

da gurekin baina badago kurtsoan zehar apuntatzeko aukera. Ze eratako jendea dabilen? Ba gehienbat emakume helduak dira baina badira neska gazteak eta zenbait mutil ere bai. Asteaz zehar dabiltzanak Bergara bertakoak dira baina astebukaeran badira Marquina, Eibar edota Oñatitik

etortzen diren zenbait ikasle." Bergaran eskulan ikastaro ezberdinak egiteko aukera dago eta gero eta eskulanzale gehiago daude gure herrian.

Eskulanen erakusketa zabalik egongo da aste barruan 6etatik 9etara eta astebukaeretan 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE



zumelaga

JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

Sagardotegi-Jatetxeak

54 urte dauzkat eta gero eta gutxiago gustatzen zait lagunekin sagardotegira joatea. Aurreko astean pare bat aldiz izan nintzen eta oso dezepzionatuta nago lehengo giro berezi hura galtzen doalako.

Beste edozein jatetxeren parekoak dira gaur egun sagardotegiak, ez dago "saltsa"rik. Akordatzan naiz orain urte gutxi direla jateko aukera gutxiago zegoela bai, baina beste ambiente bat somatzen zen. Zutik jan, lagunartean bertso batzuk bota eta majo gustora irten sagardotegitik.

Orain ez da horrela; gehiegi popularizatu da sagardotegira joatea eta lekua topatzeko ere kasu batzutan bi aste lehenago deitu behar da sagardotegira. Behin sagardotegian ez dago inolako trankilidaderik eta benetan pena bat dela.

Popularizatzearekin batera jendeak ere albokoarekin ondo portatzen ikasi beharko luke. Astebukaeretan juntatzen den jende mordoaren artean badago sagardotegira lehen aldiz joaten den jende asko eta ez dut uste egunkarrietan sagardotegien gida bat publikatzea nahikoa denik. Jendeari sagardotegien inguruko historia eta ohiturak erakutsi behar zaizkio guztiok giro jatorrago batean bildu gaitzen.

Duda barik guztiok eskertuko genuke eta ez lirateke jendearen artean hainbeste haserre gertatuko. Gure ondorengoek ere eskertuko dute hori eta sagardotegiek oraingoa baino etorkizun hobea goa izango dute.

ANGEL U.

NAN: 15.384.297

Ajuria Eneako hitzarmena Pake hitzarmena

1988an gure senitartekoen sakabanaketari ekin zenieten milaka kilometrotara urrunduz.

Ajuria-eneako hitzarmenak gure senitartekoak torturatu, umilatu eta zigortu egiten ditu.

Ajuria-eneko hitzarmenak, ez ditu legeak betetzen.

Ajuria-eneko hitzarmenak ez ditu giza eskubideak errespetatzen.

Zazpi urte luze pasa behar izan dira, sakabanaketarekin zuen helburuak lortu ez dituzuela ikusteko. Hots, presoak fisikoki nahiz moralki ezabatzea eta honela, trukerako txanpon bezala erabili ahal izatea.

Asteartean, berriz bildu zineten, zuen helburu horiek bermatuko dituen beste bide bati ekiteko.

Zein zigor klasek espero digu, guri

eta gure senitartekoei astearteko bilerraren ondoren?

BERGARAKO SENIDEAK

Zuzenketak


Orain dela bi asteko Berrigararen, 176. zenbakian hain zuzen ere, erretratu zaharrean akats bat agertu zen. Bertan agertzen zen Andres Agirre hildakotzat jotzen genuen baina, zorionez, ez da horrela, Andres Agirre bizirik baitago. Pozten gara zuzenketa egin behar izanaz eta, era berean, barkamenak eskatu nahi dizkiegu Andres Agirreri eta bere familia osoari.

Bestalde, Elena Reifs izan da Karnabaleako kartel lehiaketako irabazlea, eta ez Ana Reifs, aurreko asteko alean jarritzen genuen bezala.

BERRIGARA

Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



◆ **JARDUNen ikastaroak**

Jardun Elkarteko Gazte Taldeak taila, narrua eta argazkilaritzako ikastaroak antolatu ditu. Tailarena asteazkenetan edo zapatutan eman ahal izango da, narruarena asteartetan edo zapatutan eta argazkilaritzakoa ostegunetan. Ikastaro guztiak Kartzela Zaharrean izango dira eta prezioa 1.000 pta.koa da ikastaro bakoitzeko. Argibideak 76 08 19 telefonoan.

◆ **AEK euskaltegia**

Bergarako Akulu AEK euskaltegian, euskaduntze, alfabetatze eta EGA ikastaroetarako matrikulatzeko epea asteazkenara arte, ostailak 11, izango da zabalik. Informazio gehiago Masterreka 13an edota 76 05 18 telefono zenbakian.

JAIOTAKOAK

Asier Odriozola Casado
Urtarrilak 27
Maddi Txintxurreta
Agirregabiria
Urtarrilak 28

HILDAKOAK

Francisco Zangitu Leturiondo
Urtarrilak 29, 79 urte
Modesto Bengoa Bergaretxe
Urtarrilak 30, 95 urte

Ibai-ertzekiko sentsibilizazio kanpaina datorren astetik

Mendia Bizirik taldeak aurkeztu zuen asteazkenean

Mendia Bizirik talde ekolojistak astelehenetik otsailaren 18ra bitartean, Udalaren eta Eroskiko Kontsumo Sailaren laguntzaz, egingo duen "Ibaiak eta gu. Ibaiaren osasuna, denon osasuna" izenburuko kanpaina aurkeztu zuen asteazkenean. Mendia Bizirikeko kideek azaldu zuten, "proiektu honen helburuak ibaiaren inguruko informazioa zabaltea, herritarrengan kontzientzia piztea eta biriguneetako ibai-ertzen berreskurapen ekolojikoarekin hastea dira".

Ikasleei zuzendutako ekintzak

Helburu horrekin, Mendia Biziriketakoek hainbat ekintza prestatu dituzte. Horrela bizilagunei informazioa zabalduko zaie eta herriko ikastetxeetan ere, audiobisual eta hitzaldien bidez, ikasleek ibai-ertzen inguruko informazioa jasoko dute. Era berean, OHoko 2. zikloko 180 bat ikasleri zuzenduta, ibai-ertzak ezagutzeko bisitaldi gidatuak egongo dira. Irteera horietan haltza eta sahasa landatuko dira Usondoko parkearen inguruan eta Martoko auzoan.



Argazkian Nerea Aperribai, Edurne Mendibil eta Arantxa Portu, hitzaldiak emango dituzten biologoak.

Ikasleek ibaiaren ekosistema hobeto ezagutu dezaten, ibaian aurki ditzakegun hegaztiak, landaretza, ugaztunak, arrainak, anfibioak eta intsektuak desberdintzen erakutsiko zaizkie bigarren astean egingo diren irteeratan.


Deialdi irekia otsailaren 18an

Larunbatean, otsailak 18, landaketarako deialdi irekia egingo da interesa duten herritar guztientzat. Kanpainari amaiera emateko ibai-ertzeko zenbait leku aiproposetan basahate

bikoteak askatuko dira. Mendia Biziriketako kideek azaldu zuten, "espezie honen berezko kokagunea ibai-ertza da, elikadura eta uren kalitatearekiko exigentzia-maila baxua daukatelako".

Ekolojisten ustetan, "ibai-ertzen garrantzia baundia da, badute bizitasun bat eta normalean ez da kontutan hartzen. Herri-inguruetan nabiko degradatuta daude eta sentsibilizazio kanpaina honekin bere garrantzia aldarrikatu nahi dugu. Erreka berreskuratzea guztion esku dago".

PINTURAS BERGARA



Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...

◆ **Miserableak**

Bihar larunbata, gaueko 10.15etan, Miserableaken emanaldi berri bat izango da Iruñeko Gayarre antzokian.

◆ **Karlos Lasa**

intsumisoaren epaiketa

Aurreko astean argitaratutako hainbat intsumisoren epaiketen zerrendan, Karlos Lasaren izena falta zen. Datorren ostegunean, hilak 9, epaituko dute Karlos Lasa Donostian. Lasa Ordezko Zerbitzu Sozialarekiko intsumisoa da.

◆ **Mozorro lehiaketa**

Bedelkarrek antolatuta, Karnabal asteartean, otsailak 28, Mozorro Jantzien Lehiaketa egingo da. Honako kategoria hauek bereiztuko dira: 6 urtera artekoak, 6tik 10era bitartekoak eta 10etik 14 urtera arte. Kategoria bakoitzeko hiru sari egongo dira. Era berean, 14 urtetik gorakoei zuzenduta, sari bat egongo da talde onenarentzat.

◆ **Artzamendiko garajeak**

Udalak Artzamedin bi garaje saltzeko ditu. Subastarako minimoa milioi bat pezetakoa izango da eta eskariak Irizarren aurkeztu beharko dira otsailaren 15a baino lehen.

◆ **Txapako programazioa**

Gaur ostirala, 7etatik aurrera, *Iluntzean Rock* saioa Txapa Irratian. Bihar larunbata, 11.30etan, *Carpe Diem* magazinea, igandean 16.00etan *Epilogo* musika irratsaioa eta ostegunean, hilak 9, *Antartika bementxe hasten da* gaueko 10etatik aurrera.



Argazkian, Aranzadi Ikastolaren eta beste talde batzuen artean polemika sortarazi duen atea.

Seminarioko sarrerari konponbidea topatu nahian

Aranzadi Ikastola eta Alargunen arteko bilera astelehenean

Astelehenean Aranzadi Ikastolako eta Alargunen Elkarteko ordezkariak bilduko dira Seminarioko sarrerarekin sortutako arazoak konpondu ahal izateko. Udalak bitartekaritza lanak egingo ditu aipatutako bilera horretan. Aranzadi Ikastolak astebukaretan Seminarioko patioko sarrera ixten du, orainarte nahiko zikin agertu baita inguru hori astelehenetan. Era berean, ate hori itxi egiten da aste barruan errekreoko orduetan, goizean 10.45etatik 12etara eta arratsaldean 3etatik 5etara. Alargunetakoei giltza bat ematen zaie astebukaeretan beren elkartera sartu ahal izateko baina ez dira horrekin konformatzen, orainarte kandadua ere zenbait alditan apurtuta topatu baitute.

Ikastolako ordezkariak adierazi digutenenez, "aste barruan errekreoko

orduetatik kanpo beti dago ateren bat zabalik baina itxura batean ez da nabikoa alargunentzat".

Alargunak kexu dira beste ate batetik sartzean baloiekin izan dezaketen arriskuaz; ondo ikusten dute errekreotan ixtea baina astebukaeran zabalik uztea eskatzen dute; "zikindutakoa garbitzeko prest gaude baldin eta gure eskubideak zapaltzen ez badira". Udaletik aurreratu digutenenez, "talde asko dira ate hori erabiltzen dutenak: Haurtzaindegia, Gabinete Psikopedagogikoa, Bedelkarrekoak... Dena den, badirudi disposizio ona dagoela arazoa konpontzeko. Alde batetik lojikoak da Ikastolak borren kontrola eramatea baina ezin daiteke esan lege aldetik eskubide osoa duenik. Ea akordio batetara iristen garen".



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



Ohizkoa den bezala, aurten ere meza eman da Murinondon San Blas egunean.

San Blas jaiak ospatzen dira astebukaera honetan

Igande goizean bizikleta ibilaldia jokatu da

Astebukaera honetan San Blas jaiak ospatuko dira. Bertako Jai Batzordeak programa erakargarria prestatu du. Hasteko gaur goizean egitekoa zen San Blas opilen bedeinkapena eta gaur gauean, berriz, auzo afaria egingo da eta jarraian Gezalaga anaiarrebek alaitutako erromeixia izango da. Bihar larunbata, arratsaldeko 4retan San Blaseko VII. Mus Txapelketa jokatu da (8 erregetara). Izen-ematea orduerdi lehenago zabalduko da eta bikote bakoitzak 1.000 pezeta ordaindu beharko ditu. Sariak honako hauek izango dira: garaikurrak, bildotsa eta afari bat irabazleentzat, baserriko oilasko pare bat eta afaria bigarren geratzen direnentzat, makailoa eta afaria hirugarrenentzat eta, azkenik, laugarren postua eskuratzen dutenek sari bere-

zia jasoko dute.

Igandean, Santa Ageda egunean, Meza Nagusia izango da goizeko 11etan eta meza ostean IV. Txirindulari Ibilaldia iragarri da. Antolatzaleek 5 kilometroko zirkuitu bat prestatu dute. 14 urtera artekoek zirkuitoari bira bat eman beharko diote eta 14 urtetik gorakoek hiru. Izen-ematea doanekoa izango da eta partaide guztien artean kirol materiala zozketatuko da. Era berean, parte hartu ahal izateko behar beharrezkoa izango da kaskoa eramatea. Bizikleta probaren ondoren, Kukañak eta Kontrabandista karrera jokatu dira eta azkenik, jaietako amaiera emateko, arratsaldeko 7etan eta aspaldiko ohiturari jarraituz, San Blas ermitako hermandadeko kideen bilkura egingo da.

◆ Ski irteerak

Pol-Pol Mendizale Taldeak gazteentzat Formigalera joateko bi ski irteera antolatu ditu. Lehen irteera otsailaren 11 eta 12an egingo da eta bigarrena otsailaren 25 eta 26ko astebukaeran. Prezioa 11.000 pta.koa izango da (10.200 pezeta materiala dutenentzat), bidaia, pentsio erdiarekin alojamendua, igandeko bazkaria, erre-montek eta segurua barne. Ski ikastaro bat ere aukeran dago (4 ordu, 2.000 pezeta). Informazio gehiago Pol-Polen.

◆ Kirol tiroketa proba igandean San Martzialen

Oilagorra Elkarteko Ehiza Sailak antolatuta, kirol tiroketa proba jokatu da igandean goizeko 10etan San Martzialen. Kirol tiroketa aire konprimituko bi karabinarekin, dardoekin, arkoarekin eta tirakanikasekin jokatu da. Ondoren erakustaldia eta txapelketa.

◆ Euskadiko Igeriketa Txapelketara

Igeri Elkarteko Agurtzane Crespo (kadeteetan), Andoitz Gallastegi eta Juan de Borjak (jubeniletan) parte hartuko dute astebukaera honetan Iruñean jokatu den Euskadiko Txapelketan. Astebukaeran, Gipuzkoako Txapelketan, ondoko emaitzak lortu zituzten bergarrek: Antxon Maiztegi zilarra 1.500 m.ko proban, Agurtzane Crespo hirugarren 200 estilotan eta 100 tximeletan, Ainhoa Alberdi hirugarren 800 m.tan, Andoitz Gallastegi brontzea 200 estilotan eta Jon Jauregi lehena 100 libre eta 400 estilotan eta brontzea 200 estilo eta 200 bizkarrera proban.

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

Lau urte eta gero etxean

Lau urte espetxeratuta egon ondoren, joan zen igandean irten zen Jaengo gartzelatik Maite Guridi Elexpuru, 38 urteko antzuolarra.

Goizean-goiz irten zen presondegitik eta gartzelako atarian familiarteko eta lagunaren besarkada jaso zuen. Andaluziatik Bergararainoko bidaia kotxez egin zuen. Madrileko irteeran bazkaltzeko eta Gatzagan, bere alabekin elkartzeko, parada egin zuen. Bergarara iritsi zenean, Zabala ostatu aurrean egin zioten lehenengo harrera eta ondoren, San Martin Plazan ongietorri ekitaldia eskaini zitzaion.

Orduerdi inguru iraun zuen ekitaldiak eta mila bat lagun bildu ziren. Maite Guridik Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Senideak-ek, LABek, kuadrilakok-ek eta Aranzadi Ikastolako ikasle eta irakasleek emandako lora sortak jaso zituen. Ainhoa Agirrezaldegi eta Jesus Kortabarria *Kaxeta* bertsotan aritu ziren eta Amaia Agirre eta Iker Muruamendiarazek, berriz, aureskua eskaini zioten.

Anekdotak moduan, esan dezagun, *Antena 3* TV kateko kamarak ongietorri ekitaldia grabatzen aritu zirela. Antza denez, Euskal Herriko egoera po-

Maite Guridi

litikoari buruzko erreportaiak prestatzen ari dira eta gatazkaren ikuspuntu guztiak tratatu nahi dituzte.

Herri afariak

Lehendabiziko harrera igandean Bergaran eskaini bazitzaion ere, Maite Guridik bere herritarren ongi etorria ere jaso zuen astelehenean Antzuolako taberna batean antolatutako herri afarian. Bertan, 300 bat lagun bildu ziren mahaiaren inguruan.

Zapatu honetarako, berriz, Maite Guridi kalean

dela ospatzeko herri afaria antolatu da Artatse elkarte- an. Afaria gaueko 9etan hasiko da eta joan nahi duenak Arrano tabernan eskuratu dezake txartela 1.500 pzta.ren truke.

1991ko otsailean atxilotua

Maite Guridi 1991ko otsailaren 16an atxilotu zuten Pedro Belastegi *Peito* bere senarrarekin eta beste bergarar batzuekin batera. Zein Maiteri zein Pedrori ETari laguntza ematea leporatu zien polizia eta

horregatik sei urte eta egun bateko gartzela zigorrera kondenatuak izan ziren. Maite kalean bada ere, senarra Algeciraseko espetxean du. Lau urte hauetan, Yeserias, Carabanchel, Martutene eta Jaengo gartzelak ezagutu ditu Maitek.

Bi alaba

Maite Guridi Aranzadi ikastolako irakaslea da eta laster batean berriz ere klaseak ematera itzultzeko asmoa du. Bi alaba ditu, Maren eta Garazi eta atxilotua izan zenean 4 urte eta 15 hilabete zuten. Gurasoak espetxean izan diren lau urte hauetan Maiteren anai, koinata eta ilobekin bizi izan dira euren etxean.

**Jaengo
espetxetik
irten
ondoren
ongietorria
eskaini
zitzaion
igandean
plazan**



Igandeko ongietorri ekitaldiko argazki bat.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

**Espetxean izan za-
ren lau urteetan
zer da gehien fal-
tan somatu duzuna?**

- Familiartekoak gertu ez edukitzea eta euskara. Euskara gosez itzuli naiz etxera. Liburuak, egunkariak eta astekariak irakurtzen nituen, baita eskutitzak idatzi eta jaso ere, baina euskaraz hitzegiteko aukera gehiegirik ez dut izan.

**- Alabak ikusi dituzu
lau urte hauetan?**

- Bai, urtean hiruzpalau aldiz ikusi ditut. Kristalean hogeit bat minutu eta bis a bisean beste ordubete edo izaten ziren. Oso gutxi.

**- Eta senarrarekin
harremanik izan duzu?**

- Kartaz eta telefonoz, besterik ez. Orain dela hiru urte epaiketa egunean, Entzutegi Nazionalan elkar ikusi genuen, baina harrezkero ez. Orain, hil honen 10ean ikusiko dut. Besarkatzeko gogoz irrikatzen nago.

**- Alabek nola pasatu
dute lau urte hauetan?**

- Gurasoak ez dituzte etxean izan, baina osaba eta ilobekin ondo moldatu dira. Bestalde, bai Antzuolako bai Bergarako kuadrilako laguneren partetik laguntasun handia izan dute.

**- Eta orain ama etxe-
an dutela?**

- Pozik zoratzen gaude guztiok. Alabak ikastolara eramán, euren bila joan, horrela nabil egun hauetan.



"Hitz egin beharra dugu eta aurrera pausoak eman behar dira".

**- Aranzadi Ikastolako
andereñoa zara. Lanera
itzultzeko asmorik bai?**

- Erabakita ez dut oraindik, baina buruan daukat otsailean jai hartu eta martxorako edo lanera itzultzea. Edozein modutan ez dut Ikastolakoekin hitzik egin eta oraindik ez daukat ezer ziurtatuta.

**- Ze giro nabari duzu
gizartean urteak espe-
txean eman ondoren?**

- Nahasi samarra. Agian lehen baino okerrago.

**- Etorkizuna nola
ikusten duzu?**

- Itxaropen haundiz, guk bizi dugun gatazkarekin zerrikusia izan dezaketen beste herri batzuetan, Irlanda eta Palestinan, bake biderako urratsak eman dituztela ikusi dudalako. Hala ere, horra iritsi arteko uneak latzak izango dira.

**- Gainera kalera irte-
tzea tokatu zaizun une-
honetan koiuntura na-
hasia bizi dugu...**

- Bai Ordoñezen hilke-

ta zela eta hala tokatu da. Ordoñez kargu publikoa zen, zinegotzia, oso pertsonai berezia gainera, eta bere hilketak oihartzuna izan du espetxean baina ez dugu gauza gehiegirik komentatu.

**- Ze irtenbide ikusten
diozu gatazkari?**

- Irlandan hartu duten bidetik jo beharko genuke. Hitz egin beharra dugu eta aurrera pausoak eman behar dira, poliki eta astiro izan arren. ETAk gelditu behar du, baina ez berak bakarrik...

**- Nola ikusten duzu
dispertsioaren arazoa?**

- Legez presoak bere bizilekukit ahalik eta gertuen egon behar da. Baina presoek eta hauen familiartekoei egiten zaiena txantxia politikoa da. Dispertsioa bultzatu zutenek orain zailtzan jartzen badute euren espero zuten emaitzak lortu ez dituztelako da. Hala ere, ez dut arlo horretan jarrera aldaketarik ikusten, politiko batzuk estratejiaz aldatu behar zela esan dutenean, beste batzuk hauen kontra egin dutelako. Kontuak-kontu, epe luze-
ra, poliki-poliki, presoak Euskalerrirratuko dituztela uste dut.

**"Hil honetan bisitatuko dut
senarra Algeciraseko gartzelan.
Besarkatzeko gogoz nago"**

SURPE
Taberna
Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

Natura

Gure inguruko basoak

- Basoaren benetako balioaz jabetzen gara?

- Orainarte baloratu izan ditugu espezie konkretuak (pagoa, haritza...). Batez ere zuhaitzak baloratu dira, alde batera laga da multzoa, basoa. Jendeak, gaur egun, ez du eza gutzen basoaren balioa, uste du haritz mordo bat ikusteagatik hori basoa dela baina ez da horrela.

- Beraz, zer da basoa?

- Landare eta animali multzo bat leku batera bultzera egokitu direnak. Hori edozein ekosistemaren definizioa litzateke. Basoan, berriz, landareak nagusitzen dira eta beste ezaugarri bat irregulartasuna da.

- Bergaran zein baso mota daude?

- Zeintzuk egon beharoko lirateke, hobeto esanda. Batetik haritzia: haritza arbola nagusia delarik, horrekin beste arbola batzuk, landare txikiak, animaliak eta zuhamuskak leudeke.

Pagodian, berriz, pagoa da espezie dominantea eta hariztiarekin gertatzen den bezala, ez da bakarra, beste asko daude; artadian ar-

tia nagusitzen da eta horrekin batera gurbitzak eta beste hainbat espezie topa ditzakegu; azkenik, haltzadia ibai bazterretan egoten den baso mota da eta espezie ugariena altza dugu.

Kasu bakoitzean espezie tipiko batzuk egoten dira eta arbolaz gain, espezie horiek ere definitzen



IÑAKI IRIZAR
(biologoa)

dute zein motatako basoa den bakoitza.

- Eta zein egoeratan daude herriko basoak?

- Egoera oso txarra da. Baso moduan ia desagertuta daude guztiak. Pago-


dia da zertxobait hobeto dagoena baina denera, jatorizko baso guztiak batu ezker. Bergarako azaleraren % 7a betetzen dute. Jendeak esango du dena arbolaz beteta dagoela baina zientziaren ikuspegitik hemengo pinadiak ez dira basoak. Bergarako lurraldearen % 60a kultiboko zuhaitzekin beteta dago. Lehen aipatutako basoek % 100a bete beharko luke; gainera gaur betetzen duten % 7 hori ezin daiteke masa kontsideratu, dispartatuta daude.

- Zein da konponbidea?

- Orain Gipuzkoako Mendien Foru Araua kaleratu da eta, nobedade bezala, gelditzen den bertako landaretza babesten du. Bertako baso moten mantentzea ziurtatzen du eta onartzen du mendietan, funtzio ekonomikoaz gain, badirela beste funtzio batzuk: paisaia, lurren zikloa mantentzearena... etab. Mendia ondasun natural bezala baloratu behar da eta bateragarria dira mendien kontserbazioa eta hortik aberastasuna ateratzea.

Egoera oso larria da, eta ekintzekin gauzak aldatzen hasten diren. Argi dago partikularrei ezin zaizela asko exijitu hasieratik. Onena Administrazioa bere lurren errekupeztarekin hasia izango litzateke.

"Mendia ondasun natural bezala baloratu behar da, bertatik aberastasuna atera arren"



Basoek Bergarako % 7a betetzen dute. Argazkian, Etxezarreta.

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

LARRAÑAGA

eta ZUBIA

Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94



Etxean zaharkituak ditugun trasteak, obretako eskonbroak eta beste hondakin batzuk Zubiberriko hondakindegian.

Hondakinen gordailu berria

Asteazkenean zabaldu zen San Kristobalen

Pasa den asteazkenean zabaldu zen San Kristobaleko Hondakinen Gordailu alternatiboa. Bertara eramán ahal izango dira, orain arte, Zubiberrira eramaten ziren traste edo hondakinak. Zerbitzu hau duela hiru urtetik dago Arrasaten eta berari buruz zerbait gehiago jakiteko Mankomunitateko arduradunekin izan gara.

Bergara, Antzuola eta Elgetako biztanleek izango dute Hondakinen Gordailu Alternatiboan euren gauzak lagatzeko aukera.

Bertan hondakin inerteak (obra-hondakinak, lurrak, errautsak, kristalak etab.), metalezkoak (elektratresnak, erradiadoreak, bizikletak, aulki-

ak, bonbona hutsak, itzalgailu hutsak, etab.), zurezkoak (armairuak, aulkiak, kaxak, oholak etab.), paper eta kartoia (enbalaketak, aldizkariak, karpetak etab.), plástikoak (ontziak, botilak, azalak eta hondakinak orohar), beira (botilak, fraskoak eta ontziak orohar), mota guztietako pi-

lak, akumuladoreak eta bateriak laga daitezke. Arrasaten Hondakinen

Gordailu Alternatiboak hiru urte daramatza funtzionatzen eta Jose Martin Gallastegi Mankomunitateko zaborren arduradunak adierazi digunez, San Kristobaleko HGAK antzerako ezaugarriak ditu. *"Zortzi kontenedore daude, bakoitzean material ezberdina bota behar da. San Kristobalgora itxura aldetik pixka bat desberdina da eta kontenedoreak ere luze- ra eta zabalarenera aldetik Arrasatekoak baino bantdiagoak dira; horrela, zabortegira baje gutxiago egiteko. Arrasaten olioa ere jasotzen dugu, baina Bergarakoan ez dugu batuko, garajeetan egiten dute lan hori eta ez goaz gu lan hori kentzera. Kaleetan banatuta dauden papera batzeko kontenedoreak ere hona ekartzen ditugu".*

Kontenedoreak betetzen direnean kamioak eramaten ditu eta normalean astean behin lau bidaiak egiten ditu.

Hondakinen Gordailu Alternatibora eramaten den materialaren artean, txatarra, papera eta pilak eramaten dira birziklatzera. Beste guztia Epele-



Asteazkenetik aurrera, San Kristobalgora Hondakinen Gordailu Alternatiboan bota behar da hondakinak.

ko zabortegira erretzera eramaten dute. Pila normalak Asuako enpresa batera eramaten dituzte, han birziklatzeko eta bottoizko pilak, berriz, Gurutze Gorriak eramaten ditu merkurioa errekupe-ratzeko.

Debaldeko zerbitzua

Hondakinen Gordailu Alternatibora gauzak eramategatik ez dute ezer kobratzen. Halere baldintza batzuk bete behar dira instalakuntzak erabiltzen diren bitartean. *"Hona sar daitezkeen ibilgailuek 2.500 kilo baino gutxiago izan behar dute eta horrezaz gain, bolumen aldetik HGArA eramaten diren trasteek ezin izango dute 2 metro kubikoko bolumena pasatu eta pisua 750 kilora mugatzen da aste eta erabilaldi bakoitzeko. Kopuru horiek gainditzen dituztenak Epelera eraman abal izango dira. Gainera, eraman daitezkeen materialak etxe mailan sortitezkeenak edo antzera-*



Jose Martin Gallastegi, Mankomunitateko zabor arduraduna.

koak dira. Lantegietako hondakinak ezin dira eraman" esan digu Gallastegik.

Etxetik San Kristobalera hondakinak eramaten ditugunean, hara helterakoan kontenedore ezberdinak ikusiko ditugu. Kontenedore bakoitzean material ezberdina sartu behar da eta norberak bota beharko ditu be-

re hondakinak. Zerbait lurrera erortzen bada zerbitzua erabiltzen duenak jaso beharko du.

Arrasaten duela 3 urte zabaldu zuten Hondakin-degi Alternatiboa eta Gallastegik positiboki baloratu digu orainartekoa. *"Arrasateko bazterrak garbi daudela ikusten da. Proiektuak kosto bat du, baina azken batean*

inguruak garbi mantentzea merezi du". Gehien batzen den materiala eskonbroak dira. Plastikoa batzen den arren ez da birziklatzen, horretarako plastikoa bere ezaugarrien arabera banatu behar da eta hori egiteko plastikoa Bartzelonaraino eraman beharko litzateke. Hondakindegiaeren arduraren eramateko, Arrasaten bezala, gure herrian ere langile bat izango da.

Lanegunetan goiz eta arratsaldetan zabalik

Andoni Larrinaga da hain zuzen ere Arrasateko Hondakindegiko arduraduna eta berak dioskunez garrantzitsua da bere azalpenei kaso egitea. *"Hondakin bakoitzak bere lekura bota behar da, egurra egurrera etx. Hala ere, badago jendea zalantzak dituen eta obiturarekin ikasten da. Normalean, zerbitzu hau igeltsero eta borrelakoek erabiltzen dute, baina astebukaeran partikularrak ere dextente*



Union Cerrajerak 10 urterako utzi dio Udalari hondakindegia berria jartzeko lursaila.

elortzen dira. Norbaitek ez badu zerbait ulertzen, onena langileari galde-tzea da".

Zerbitzuaren ordutegi-ari dagokionez, astelehene-rik ostiralera goizeko 9etatik eguerdiko 12,30e-tara izango da zabalik eta arratsaldetan 4retatik 7etara. Larunbatetan, berri-rik, goizeko 9etatik eguerdiko ordubata arte. Abuztuan goizeko 9etatik eguerdiko 13,30 arte.

ditugu, orain hondaki-nak dauden tokia txu-kuntzeko".

San Kristobaleko HGA

Diputazioak egin du eta lur sailak Union Cerraje-rak 10 urterako utzi diz-kio Bergarako Udalari.

Mankomunitatea ardura-tuko da zerbitzuaz eta Udaleko Hirigintza zine-gotziak esan digunez. "Instalakuntza berriare-kin espero dugu hemen-dik aurrera jendeak tras-te zabarrak bertara era-matea eta ez orain arte bezala kamino bazterre-tan edo horrelako tokie-tan lagatzea".

Kontu honetan, beraz, herritarrek badute zer esanik...

"Eraman daitezkeen materialak etxe mailan sor litezkeenak edo antzerakoak dira. Lantegietako hondakinak ezin dira eramán"

Zubiberrin parketxoa

Orainarte gure herrian hondakinak bota nahi zitu-enak Zubiberri inguru-an dauden kontenedore-etara bota behar zituen. Baina Udalak Zubiberrin dituen lau kontenedore-ak ahalik eta azkarren erretiratuko ditu, Xabier Gallastegi, Hirigintza zinegotziak adierazi digu-nez. "Kontenedoreak be-rebala kentzeko asmoa dugu eta era berean, Zu-biberriko inguruetan sei-nale batzuk jarriko ditu-gu, jendeak jakin dezan San Kristobalera joan behar duela trasteak bot-atzera. Gero banku eta zubaitz batzuk sartuko



Zubiberrin laister kenduko dituzte kontenedoreak eta zuhaitzak landatzeaz gain aulki batzuk jarriko dira.


Ikastaroak



TAILA ASTEAZKENETAN (17.30-19.30) edota ZAPATUTAN (15.30-17.30)

NARRUA ASTEARTETAN (17.30-19.30) edota ZAPATUTAN (11.00-13.00)

ARGAZKILARITZA OSTEGUNETAN (17.30-19.30)



- **MATRIKULA:** 1000 pzta. ikastaro bakoitzeko
- **INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA:** JARDUN Elkartearen (Masterreka, 13. ☎ 76 08 19)
- **AZKEN EGUNA:** Otsailak, 10

GAZTE

GARTZELA ZAHARREAN

Elurretara eskiatzera joaten zara?



Gurutz Orbe

13 urte, ikaslea

Ez, ez daukat ohiturarik. Txikiago nintzenean joaten nintzen baina aspaldi ez naiz joan. Aurten igual... ez dakit.



Sonia Dávila

17 urte, ikaslea

Normalean ez naiz joaten. Behin egon naiz bakarrik, ikas bidaian. Gustatu zitzaidan baina ez daukat ohiturarik joateko.



Jose Inza

47 urte, langilea

Ez, sekula ez naiz egon. Ez dut afiziorik eduki; mendira joateko bai baina elurretarako ez. Nere familian ez dago afizioa daukan inor.



Nere Madariaga

13 urte, ikaslea

Orain, astebukaera honetan bertan egon naiz lehen aldiz ikastolarekin Astunen eta asko gustatu zait. Berriz joatea gustatuko litzaidake.



Manolo Sánchez

22 urte, ikaslea

Ez naiz inoiz egon. Izotzean patinatzen joan izan naiz bai baina eskiatzera ez. Baina badaukat probatzeko gogo.



Ana Orgaz

49 urte, langilea

Lehen joaten ginen baina gastu handia zen. Bestalde, askotan erortzen nintzen eta norbaiti zauriak eragiteko arriskua zegoen.



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura


Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA



"Kontextua"

Joan den astean Donostian gertatutako eraiketa tamalgarraren ondoren, bat baino gehiago izan da kontra garbi azaldu nahi ez eta "kontextu" hitza erabiltzera jo duena, kontextua eta errealitatea gauza desberdinak izango balira bezala, edo beste era batera esanda, testuingurua, gauza abstrakto bat, gizakioi eta euskal herritarroi nonbaitetik ezarritakoa, guk bere eraikuntzan parte hartu izan ez bagenu bezala. Egia da, gaur egungo konfigurazio politikoa erabakitzerakoan euskaldunok ez dugula erabateko independentziarik izan, eta zela edo hala paktu batzutura iritsi behar izan zirela trantsizioa prestatzen aritu zirenak. Baina egia da halaber, hiritar gehienek eroso ikusten dutela euren burua eta bizi dugun testuingurua eraikitzen parte hartu duten uste osoarekin.

Azken batez, testuingurua bera ere era askotara ulertu eta interpreta daiteke, eta Konstituzioa Euskal Herriak ez zuela onartu esaten duenari, aldeko botoak kontrakoak baino gehiago izan zirela erantzun diezaioke edonork; Estatutua herri honen aurkakoa dela esaten duenari, herri honek baiezkota eman ziola gogoratu. Zer esan napparrek Euskal Herri bateratu batez duten eritziaz. Zer independentziazaileen kopurua urte urte jeisten eta eskuina indartzen ari dela ikustean.

Testuinguruak aldatu egiten dira, eta gu ere kontextua bera alda erazten saiatzen gara. Hortan ari dira armak eskuan dabiltzanak. Baina errealitatearen irakurketa zuzen bat da lehenengo premisa eta hori uste dut falta dela borroka armatuaren aldekoen artean. Ondorioz, ustez Euskal Herria-Estatua kontentziosoa zena, armen erabilpenaren aldekoen eta gizartearen arteko kontentzioso ari dira bihurtzen. Gaur hemen, irtenbide bat baino ez dago. Armak baztertu eta hitz egin. Txarra bada eskubiderik gabeko pakea, are okerragoa talde militarren armistizioa pakea bailitzan herri bati inposatzea.

Iñaxio ARREGI



Bost nazio lehian

Urte hasierarekin rugbyak duen torneorik ospetsuena hasi da; hamar partidu jokatuko dituzte bost ihardunaldietan banaturik, denak denen aurka buelta bakar batera, hau da, talde bakoitzak lau partidu besterik ez ditu jokatzen, bi etxean eta beste biak kanpoan.

Jadanik lehenengo ihardunaldia jokatu da. Parisen joan zen urteko txapelkunak, Galesek, ezin izan zuen azken 20 urteko marrikazioa apurtu, eta partidua galdu zuten, nahiz eta Frantziako taldeak baino aukera gehiago izan baloia jokatzeke. Dublinen, ordea, ingelesak suertatu ziren garaile, adituen aurreikuspenak baieztatzen.


Aurten ere, Frantzia eta Ingalterra faboritoak. Bien artean britaniarrek aukera gehiago dituzte etxean jokatuko baitute euren arteko partidua. Baina adi egon, frantziararen hiru laurdenek (meletan sartzen ez direnak) dagoeneko erakutsi dute zein arriskutsuak dira eta zein errez lortzen dituzten entsaioak.

Bestaldetik ikustear dago eskoziarren maila aurtengo txapelketan, eta egurrezko koilara irabazteak (partidurik irabazten ez duen taldearentzako saria) eragiten duen presioa arrisku horretan dauden taldeen artean.

Ez dugu ahaztu behar, aurten Hegoafrikan, ekainaldean II. Munduko Kopa jokatuko dela eta bost nazioetako txapelketa jokatzen ari diren taldeak, azken hiru denboraldietan 1995 urtera begira entrenatu direla.

Ikuskizuna martxan dago.

Iñaki UGARTEBURU



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51



Miguel Altuna institutuko irakasleen aktuazioaren irudi bat. Rappelengana gomendio eske hurbildu omen ziren, besteak beste, Carlos eta Lady Di.

A ze juerga!!

Aurreko ostiralean Bergarako ertainetako ikastetxeetako ikasleek beren jaia ospatu zuten. Goizean goizetik hainbat ekitaldi izan ziren **Ipintza** eta **Miguel Altuna** institutuaren **Santo Tomas** eta **San Juan Bosco** ospatzeko. Jai-giroa izan zen nagusi eta ikasle eta irakasleek nahiko barre egin zuten jaialdiekin. Bazkalostean ere giro zalapartatsua izan zen herria kaleetan eta juergak goizaldera arte iraun zuen.

Ohizkoa denez, ikasleek beren patrioenganako debozio handia erakutsi zuten aurten ere. Espero dezagun azterketetan ere beren laguntza izatea...

Ibargaraiko dendarien zozketa

Aintzane Oregi gazteak irabazi du Ibargaraiko komertzianteez geginiko zozketako saria. Zenbaki saritua 19.637a izan da eta Aintzane eskuratu du

Kanarietarako bi pertsonarentzako bidaiari. Boleto sariduna Ninika loradendan banatu zen. Argazkian Aintzane Oregi eta **Mari Kruz Maiztegi**,

Ninika loradendakoa, saritutako boletoarekin.

Aintzane bere aita animatu nahian dabil maiatz aldera Kanarietara joateko. Nor joan erabakitzen duten bitartean, zorionak eta ondo pasa Kanaria aldean!! Hori suertea, hori!!





- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7
behea.
☎ 76 50 39

AKORT


Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala, 1



gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA



Joseba Imanol Amiano azkoitiarra eta Antton Iriondo elgoibartarra izango dira DEBALDEko komertzialak.

Suplemento komertzial berria

Deba Bailarako 4 astekariek, Arrasate Press, **Berrigara**, Elgoibarren eta Eta Kitto! (Eibarkoa) aldizkariak, **DEBALDE** izeneko **koloretako suplemento komertziala** kaleratuko dute elkarrekin datorren otsailetik aurrera. Gehigarria 4 aldizkarietan, barruan gratututa joango da eta bere bidez, bailara mailan publizitatea egin nahi duten merkatal etxeei aukera berri bat eman nahi zaie. Antton Iriondo eta Joseba Imanol Amiano izango dira DEBALDEko komertzialak.



Mende erdi elkarrekin

Jesus Larrañaga eta **Bibiana Biain** bergararrek beren ezkontzaren urrezko eztaiak egin zituzten urtarrilaren 25ean. Hori ospatzeko, familiartekoekin bazkaria egin zuten aurreko igandean Zumelaga jatetxean. Han izan ziren, besteak beste, beren 7 seme-alabak eta lau bilobak. Guztiek egun eder bat pasa zuten elkarrekin eta Bibianak eta Jesusek primeran ospatu zuten hain fetxa berezi hori. Zorionak eta eutsi osasunari!!

Zertan dihardute ba?



Amaia Agirre eta **Idoia Bollar**

(argazkian) Oñatiko Natur Eskolako arduradunetako bi ditugu pasa den urtarrilaren 9tik. Oñatiko Udalak lehiaketa publikoa deitu zuen eta aurkeztutako proiektuen artean, Idoia, Amaia, Jon Mirena Betanzos eta Eli Arregirena izan zen aukeratua. Laurek Kaskabeltz osatzen dute eta hemendik ekainera bitartean eskolaren ardura izango dute. Oñatiko Natur Eskola OHoko ikastetxeei zuzenduta dago. Amaiaren hitzetan, *"ingurugiro beziketan dagoen butsunea betetzea da gure helburua. Hori lortzeko ibilaldiak antolatzen ditugu Arantzazu inguruan eta eskolan bainbat tailer praktiko ematen dira"*.

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

Antonio Sánchez

Antonio Sánchezek (31 urte) 9 urte daramatza taxista, batipat herriko hainbat enprekin lan egiten duelarik. Aurretik, 6 urtez, pelotako epaile izan zen Empresas Unidasen.

- Zenbat balio du kilometro batek taxian?
- 52 pezeta baina onartuta dago jadanik 60 balio izatea ere.
- Egindako ibilbiderik luzeena?
- Bergara eta Frankfurt-en artekoa, 3.200 Km. joan eta etorri.
- Maizen egiten duzuna?
- Bergara-Sondika.
- Eta gehien gustatzen zaizuna?
- Miarritzera.
- Zenbat kilometro urtean?
- Asko, 100.000 bat.
- Zenbat kotxe izan dituzu?
- Lau. Orain Mercedes bat daukat.
- Abiadura limiteak errespetatzen dituzu?
- Ez.
- Kotxean irratia ala musika?
- Irratia.
- Bezeroekin zeri buruz berba?
- Orokorrean danetik.
- Kotxean erretzen duzu?
- Bakarrik nagoenean bai,



"Urtero 100.000 bat Km. egiten ditut taxiarekin eta gehien egiten dudan ibilbidea Sondikara artekoa da. Paradan ez naiz egoten, hilda dago. Gaur egun ez naiz pelotara joaten eta epaile izateari publikoarengatik utzi nion batipat"

- Klienteekin ez.
- Taxi paradan denbora asko igarotzen al duzu?
- Ez naiz bertan egoten, hilda dago.
- Kanpora joan izan zarenean taxian ibili zara?
- Bai.
- Non gidatzen dute okerren?
- Marruekoson.
- Errepide onenak non?
- Alemanian.
- Maltzaga-Urbinaren alde ala kontra?
- Alde.
- Zelan sartu zinen pelotako epaile?
- Frontoian lan egiten nuen eta pasako epaile izateko eskeini zidaten. Ondoren zentrokoa izan nintzen.
- Eta zergatik utzi?
- Publikoarekin izaten nituen arazoengatik. Dirua jokatzeko da eta...
- Istilurik gogorrena?
- Behin, Bergaran, bi gizonen jo egingo nindutela esan zidaten.
- Pelotara joaten zara?
- Ez.
- Frontoirik gustukoena?
- Astelena.
- Pelotari bat?
- Retegi II.a.
- Jokaldirik politena?
- Gantxoa.
- Zeintzuk irabaziko dute aurtengo binakako txapelketa?
- Unanuek eta Zezeagak.

iletxo
ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
Ientzerria
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA

Maxim's
☎ 76 20 61

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ETXEBIZITZA

Garaje plazak alokatzen dira Burdinaten. ☎ 76 12 36 / 43 37.

Pisua salgai Osintxun. 3 milioi. ☎ 76 49 12.

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Pisu bat alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Pisua eta lonja salgai Osintxun. ☎ (945) 25 19 64.

Pisua salgai Zumaian. ☎ 76 44 53/74 31 81.

Garajea alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 30 10.

Pisu amueblatua salgai Osintxun. 75 m2. ☎ 76 08 51.

Garajea salgai Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

Garajea salgai Kruz Gailastegin. ☎ 76 16 13.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70 (eguerdiz).

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 48 08.

Garajea saltzen da San Antonion. ☎ 76 08 13.

DENETARIK

Pekines txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

Armairu bat erosiko nuke. Haundi samarra bada askoz hobeto. ☎ 76 03 48 / 76 06 87.

Braco aleman txakurrak salgai. 1994ko ekainean jaiotakoak. ☎ 76 10 79.

Trialeko Cota 335 motorra (SS-AM) salgai. ☎ 78 24 90 (Iñaki).

Lada Niva (SS-AN) eta **Ford Scort** (SS-AD) kotxeak salgai. ☎ 76 00 51.

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauzez).

Renault 19 16v. kotxea salgai (SS-AJ). 53.000 Km. ☎ 76 24 02.

Ford Fiesta SS-AD kotxea salgai. ☎ 76 46 80 (gauzez).

Reflex Minolta argazki kamara (7000 AS) salgai. 35-70 eta 70-120 objetiboak eta flasharekin. ☎ 76 04 15.

Sega Megadriveko jokoak salgai. 2.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Paseorako **bizikleta** egoera onean salgai. 9.000 pezeta. ☎ 76 16 51.

Snowboard tabla bat (10.000 pta.) eta skiak, fijazioak eta botak salgai (15.000). ☎ 76 33 61.

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhua).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Neska batek era askotako lanak egingo lituzke. ☎ 75 24 47.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Matematika eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 53 21.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 29 14 (Ana, gauzez).

Etxeko lanak egin edota zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziero klaseak. ☎ 76 05 43.

Ingeles Filolojian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 17 36.

Euskarazko klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 05 97.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.


EDEL TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA



TOSHARE

☎ 76 29 70

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38


BOLO-BOLO

IEPA IRAKURLE!!:
 Aste hontatik aurrera ta hillian behiñ, zeoze BOLO-BOLO ibilliko da. BOLO-BOLO ibilliko dan gauzori, Bergarako euskeran eindda eongo da, hau puxkat hobeto


ezagutu daigun. BOLO-BOLO, beste gauza batzun artian, jokuekin, komikixekin eta sariketa batekin osatuko da. Hau aurrera eruateko: AEK, UDAL EUSKALTEGIXA, UNED eta JARDUN

alkartu ga eta sarixak ETXEPARE-BILINTX liburudendiak emongo dittu, euskal liburu ero diskua. Hala be, esan, zure parte hartze barik, hau ez dala ezebe, zure ekarrixa nahi

tta nahiezkua da, bai sariketan parte hartuaz, bai euskera maillan, guk zeoze jaso ez dogunian lagunduaz. Orduan, beste barik, ondo pasau ta ia irabazten dozun. la ba, ekin jolasian...



Gorputzan aurreko parteko izenak geuk ipiñi dittugu. la zuk atzekuak asmatzen ditzuzun. Gutxienez zazpi ipiñi biha die ondo, Bergarako euskeran, zozketan sartzeko. Ahal dan gehixen ipiñi. Epia: otsailan 15erarte



esaeria.....

Ekulonduai mun emon ezindda ibiltzen da DIRUZ AILEGATU EZINDA. DIRUZ AILLEGAU EZINDDA.

BOLO-BOLO

Izena..... Abizena..... Telefonua.....

Jarrizu erantzunak, bete txartela zure datuekin eta bialdu orrixa otsailaren 15a baino lehenao BERRIGARARA. Errotalde Jauregia, Kultur Etxia.



TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	A m u l t z o a
1. Errotagain	10	5	5	0	0	30	6	
2. Madura	6	5	2	2	1	16	9	
3. Bildurbarek	6	5	3	0	2	21	19	
4. Kabia	5	5	2	1	2	19	11	
5. Arioteak	4	5	1	2	2	14	18	
6. Ozaeta	4	5	2	0	3	10	14	
7. Mongatxurra	4	5	2	0	3	13	21	
8. Bar Canalejas	3	5	1	1	3	11	16	
9. Ufala	3	5	1	1	3	14	23	
10. Angiozar	3	5	2	1	2	21	31	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B m u l t z o a
1. Usoa	9	6	3	3	0	19	11	
2. Arkupe	8	5	4	0	1	34	16	
3. Ogizun	8	6	3	2	1	20	11	
4. Etxagi	7	6	3	1	2	26	21	
5. Pagomendi	7	6	3	1	2	13	15	
6. OH Zerezos	6	3	3	0	0	10	5	
7. Revienta	4	5	1	2	2	11	21	
8. Kayak O.J.	3	5	1	1	3	8	23	
9. Guadalest	2	9	1	0	8	1	8	
10. Uve Bikoitza	2	5	1	0	4	10	21	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C m u l t z o a
1. Hartu Zamak	8	5	4	0	1	36	11	
2. A Ze Flaxa	8	4	4	0	0	17	9	
3. Etxenagusia	6	4	3	0	1	18	14	
4. Nahik. Hooll.	5	5	2	1	2	12	16	
5. Kriterium	4	4	2	0	2	16	10	
6. Eri	4	5	2	0	3	13	19	
7. Amozkibar	2	4	1	0	3	10	15	
8. EH Biterrak	2	4	1	0	3	7	22	
9. Soropotroak	1	5	0	1	4	12	25	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D m u l t z o a
1. Kirolzaleak	8	4	4	0	0	27	4	
2. Ezinleike	7	5	3	1	1	10	13	
3. Iganekoak	6	4	3	0	1	35	17	
4. Shaktale	5	3	2	1	0	6	4	
5. La Juve	5	4	2	1	1	19	27	
6. Ari Ari	3	5	1	1	3	11	26	
7. Nekrofilikos	2	4	1	0	3	20	19	
8. Krai	0	5	1	0	4	8	17	
9. Const. Bergara	-2	4	0	0	4	1	10	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E m u l t z o a
1. Txipiron	7	4	3	1	0	19	3	
2. Pata Negra	6	5	3	0	2	23	13	
3. Aldoka Maldoka	5	4	1	3	0	18	15	
4. Los Txupeta	5	4	2	1	1	11	8	
5. Pikapiedras	5	4	2	1	1	16	17	
6. Patxaran Team	3	4	1	1	2	12	14	
7. Paok San Juan	2	4	0	2	2	8	21	
8. Labegarieta	1	5	0	1	4	10	26	

emaitzak

Madura-Bildurbarek **6-3**

Arkupe-OH Zerezos **5-3**

Ogizun-Pagomendi **7-3**

Arkupe-Uve Bikoitza **9-3**

Amozkibar-Sorop. **6-5**

EH Biter.-A Ze Flaxa **1-4**

Paok S. J.-Patxaran T. . **0-1**

Txupeta-Pata Negra **0-3**

Txipiron-Paok S.J. **12-0**

Labegarieta-Aldoka ... **3-3**

partiduak

LARUNBATA

Barruan

9.00: Labegarieta-Paok San Juan
Antolaketa Batzordea

IGANDEA

Barruan

9.00: Aldoka Maldoka-Txipiron
Kriterium
10.00: A Ze Flaxa-Kriterium
Txipiron
11.00: Etxenagusia-Nahik. Hooll.
A Ze Flaxa
12.00: Amozkibar-Hartu Zamak
Etxenagusia
13.00: EH Biterrak-Eri
Hartu Zamak
16.00: Ezinleike-Shaktale
Construcciones Bergara
17.00: Nekrofilikos-C. Bergara
La Juve
18.00: La Juve-Krai
Iganekoak
19.00: Iganekoak-Ari Ari
Patxaran Team
20.00: Pikapiedras-Patxaran Team
Ari Ari

Kanpoan

9.00: Pagomendi-Revienta
Etxagi
10.00: Etxenagusia-OH Zerezos
Kayak Os Jardineiros
11.00: Usoa-Kayak Os Jardineiros
Uve Bikoitza
12.00: Ogizun-Uve Bikoitza
Bildurbarek OPEL LAM
13.00: Kabia-Bildurbarek
Ogizun
16.00: Ozaeta-Angiozar
Mongatxurra
17.00: Mongatxurra-Errotagain
Ozaeta
Beltzez agertzen diren
taldeek partiduak arbitratu
beharko dituzte

Kirol Sariak 94: Amaia Samaniego, Bergara K.E.ko eskubaloi saila eta Serafin Esnaola sarituak

Ostegunean banatu ziren Kultur Etxean herriko kirolariek iaz egindako lana aitortu eta saritzeko asmoz Udal Kirol Zerbitzuak eta Berrigarak antolatutako lehiaketako sariak. Amaia Samaniego eskubaloi jokalaria eraman zuen kirolaririk onenaren saria. Bergara K.E.ko eskubaloi sailak, berriz, kirol elkarterik onenaren saria jaso zuen eta Serafin Esnaolak, azkenik, urtetan kirol munduan egindako lanagatik nabarmendu den pertsonaiarena.

Aurten hirugarren aldiz antolatu den sariaketa hiru ataletan banatu da. Alde batetik, kirolaririk onena Berrigarako irakurleen botoen bitartez aukeratu da. Guztira, 230 boto inguru zenbatu dira eta Amaia Samaniego eskubaloi jokalaria izan da botorik gehien jaso dituen (31 boto). Bere atzetik Agustin Aranzabal Real Sociedadeko jokalaria sailkatu da (28 boto) bigarren postuan. Agustin Toledo

elbarria eta iaz Espainiako elbarrituen Boccia txapelketan bigarren postua lortu zuena, boto gehien lortu dituen hirugarren kirolaria izan da (23 boto).

Esan behar da Agustin Toledo hautagaien zerrendan jartzea ahaztu egin zitzaigula Berrigara astekaria egiten dugunoi, baina irakurleek ez dute ahaztu eta bere aldeko botoak jaso ditugunez ontzat eman ditugu.

Bigarren atal batean,



Amaia Samaniego, etorkizun haundiko eskubaloi jokalaria.

herriko kirol elkarterik onena saritu da eta sail honetako irabazlea herriko kazetari berriemateek aukeratu dute. Bergarako Kirol Elkarteko Eskubaloi sailak eraman du 1994ko Bergarako kirol elkarterik onenaren saria.

Azkenik, urteetan zehar herrian kirolaren alde egindako lanagatik nabarmendu den pertsonari ematen zaion sari berezia, aurtan Don Serafin Esnaola apaizari ematea erabaki dute herriko kirol elkartetako eta Udal Kirol Zerbitzuko ordezkariak aho batez.

AMAIA SAMANIEGO

1994ko Bergarako kirolaririk onena

1994ko Bergarako kirolaririk onenaren saria Amaia Samaniego eskubaloiari gazteak jaso du.

Amaia Samaniegok 15 urte ditu eta Iñaki Cantero zuzentzen duen Bergara Kirol Elkarteko eskubaloi kadete nesken ekipoa jokatzeko hegoaldeko hegalean. Une honetan Euskal Ligan golik gehien sartu dituen jokalaria da.

Bestalde, Bihotz Beristain taldekidearekin batera, Euskadiko selekzioarekin kadete mailako emakumezkoen Espainiako eskubaloi txapelketan bigarren postua lortu zuen joan zen urtean. Amaia bere taldeko golegilerik onena izan zen, partidu bakoitzeko bataz beste 8 gol sartu zituelarik. Jokalari azkarrak da, eskutur finekoa eta 1.76 zentimetro neurtzen ditu.

Gipuzkoako eskubaloi talde inportanteenetako begiraleak bere atzetik dabilta. Pozez hartu zuen ostegunean Kirolaririk onenaren saria.



Bergara. K.E.ko eskubaloi saileko gizonen senior taldea.

**BERGARA
KIROL ELKARTEKO
ESKUBALOI SAILA**

**1994ko Bergarako kirol
elkarterik onena**

Bergara Kirol Elkarteko eskubaloi saila bere urterik gozoenak bizitzen ari da. Orain dela 15 bat urte sortu zen eta urteak joan ahal pixkanaka-pixkanaka sendotzen joan da.

Gaur egun bost talde federatuk osatzen dute saila: 3 gizonen taldeak eta 2 emakumezkoen taldeak. Gizonen artean, Josetxo Muniategi eta Zigor Ruiz de Eguinok zuzentzen duten senior taldea 2. Nazional mailan jokatzeko ari da. Iaz mailaz igo zuen eta aurtengoa, hasieran kategoriarik neurria hartu ezin izanda ibili baziren ere, pixkanaka hobetzen joan dira.

Jubeniletako taldea Ibon Gantxegi eta Gotzon Arzelusek zuzentzen dute eta kadetetako Xabier Lijo eta Felix Egurenek.

Emakumezkoen bi taldeak, jubenil eta kadeteak, Iñaki Canterok zuzentzen ditu. Iaz Euskal Ligara igotzea lortu zuten eta aurtengoa ondo baino hobeto dabil.

Kadeteak, esate baterako, bigarren postuan sailkatuta daude eta Espainiako txapelketara joateko aukera handiak dituzte.

Bergara Kirol Elkarteko Eskubaloi sailean 14-23



Don Serafin Esnaola, urtetan Pol-Polen egindako lanagatik saritua.

**KIROL
KARTELDEGIA**

- **Futbola**
Bergara-Trintxerpe
Preferente maila.
Igandea, 16.15. Agorrosin.
- Bergara-Ordizia**
2. mailako jubenilak.
Igandea, 9.45. Ipintza.
- Bergara-Lagun Onak**
Lehen mailako infantilak.
Larunbata, 16.30. Ipintza.
- Bergara-Lagun Onak**
Emakumezkoak
Igandea, 11.15. Ipintza.

- **Eskubaloia**
Bergara-Zuazo
Kadete neskek.
Larunbata, 16.15.
- Bergara-Zuazo**
Jubenil neskek.
Larunbata, 17.45.
- Biak Kiroldegian.

**FUTBOLEKO
EMAITZAK**

Sekulako garaipena lortu zuten Bergarako preferentekoek joan zen astean Matigoxotegin Muniberen aurka:

- Preferente maila**
Munibe 3-Bergara 7
- Lehen errejionala**
Bergara 0-Tolosaldea 3
- Lehen mailako jubenila**
Bergara 2-Michelin 1
- 2. mailako jubenila**
Bergara 1-Urki B 2
- Lehen mailako kadetea**
Aloña Mendi 1-Bergara 2
- 2. mailako kadetea**
Bergara 4-Eibar 4
- Infantila**
Hernani 0-Bergara 1
- Emakumezkoak**
Zumaiako 3-Bergara 1

**KIROL 94
sariak**

OHOREZKO KOADROA

- **Kirolaririk onena** (50.000 pzta.)
 1. **Amaia Samaniego.** Eskubaloia. 31 puntu.
 2. **Agustin Aranzabal.** Futbola. 28 puntu.
 3. **Agustin Toledo.** Boccia. 23 puntu.
 4. **Ion Andueza.** Futbola. 20 puntu.
 5. **Iñigo Igartua.** Ziklo krosa. 19 puntu.
- **Kirol talderik onena** (50.000 pzta.)
BKEko Eskubaloi Saila
- **Sari berezia** (Garaikurra)
Serafin Esnaola, *Don Serafin*.
Pol-Poleko *Gaztetxo* sailaren sortzailea.

Afariaren irabazlea: Paul Mujika
Kirol Zerbitzuko karnetaren irabazlea: Mireia Gallastegi

urte bitarteko 80 jokalaririk inguru biltzen dira. Josetxo Muniategi da saileko arduraduna eta 2 milioi inguruko aurrekontua du 1994-95 denboraldian.

**SERAFIN ESNAOLA
DON SERAFIN**

Sari berezia

Gaur egun Donostian bizi den arren, urtetan eta urtetan Bergaran egin duen lana izugarria izan da. San Antonioko elizan zein Pol-Polen, batez ere gazteekin aritu da 1964ean Bergarara etorri zenetik, orain dela sei bat urtera arte. 1969. urte inguruan Pol-Poleko Gaztetxo saila sortu zuen eta burubelari aritu zen mendizale taldean. Bertan egindako lana aitortu eta saritu nahi izan dute herriko kirol elkarrekin ostegunean eman zitzaion oroigarriekin.



San Pauluak izen diela-ta

Uberako jaixetan oiñ auto-krosa eta mendiko bizikleta-karrera eitten dan letxe, orduan, oiñ dala 52 urte, auzokuen artian karroza bat gertatzen zeben ta hantxe ibiltzen zien auzuan gora ta behera egun on bat pasatzen. Karrozia loraz jositta eoten zan, erretratuko astuan moduan eta soiñu eta panderuan musikial esker, dantzan be ein zeikien.

Ezkerretik eskumara:

Atzian: Esteban Basauri (panderujolia, Goian Bego), Tomas Elexpuru (soiñujolia).

Erdi inguruan: M. Rosario Zezeaga, Maria Elortza, Jesusa Basauri, Serapi Gallastegi, Jesusa Elexpuru, Felisa Gallastegi, Asuntzion Eguren, Pablo Markiegi (sonbreroduna), Basilisa Zezeaga, Isidra Markiegi, Luis (maistran semia), Sabino, Luis Aranzabal, M. Luisa Olañeta, Joxe Zezeaga, Juanito, Juli Olañeta, Irene, Manuel Elexpuru, Barrenetxeko kriaua, Ezezauna, Manolo (maistran semia).

Makurtuta: Anjel Lazpiur, Jazinto Markiegi, Juan Jose Laskurain, Tomas Basauri.

Erretratua: M. Rosario Zezeaga.

Erretratua: M. Rosario Zezeaga.

Testua: Felipe Iñarra

Atsedeen zentrua
LOKARTU
 Koltxoi-denda
 Orain SORALUZEN

ORTZI
 erretegia
 Ezkontzak, jaunartzeak, despedidak...
 130 lagunentzako jantokia
 ☎ 76 22 68 ANGIOZAR

ZUBIETA
 elektragintza
 MOTORREN BOBINAKETA
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
 Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

LEVI'S

Cristina

LEVI'S

LEVI'S denda baimendua

Parkak eta txaketak	% 50
Koloretako Caroché prakak	% 50
Levi's kamisetak	1.900
kamisetak sinistu ezindako preziotan ..	1.900-3.900
Txanodun Levi's sudaderak	2.900
Praka bakeroak, taila solteak	1.900


LEVI'S

OTSAILEAN SEKULAKO PREZIOAK!!

LEVI'S

95erako IKASLEENTZAKO KANPAINA

ABANTAILAK BISTAN



EUSKARRIA + KRISTAL GRADUATUA

7.700 pzta.

ZATOSZ ETA IKUS

Zatoz orain OPTICOS ASOCIADOSera, otsailean zehar aparteko eskaintza egiten dizugu euskarri nahiz kristaletan eta gainera prezio paregabean



EUSKARRIA + KRISTAL GRADUATUA

7.700 pzta.

ZAINDU BEGIAK, IKUSIKO DUZU ALDEA

Zatoz orain OPTICOS ASOCIADOSera, ikusmenaren miaketa osoa egingo dizugu. Eta gainera, irabazten irtengo zara OPTICOS ASOCIADOSekoen profesionaltasun eta garantiarekin.



GIPUZKOAKO OPTICOS ASOCIADOS

P. Manso

optika

Irizar pasealekua, 2 BERGARA



CONSUM

EROSKI

SUPERMERKATUAK

Otsailetik
aurrera



Inoiz baino ordu gehiago zure zerbitzura!!

ORDUTEGI BERRIA

**ASTELEHENETIK
OSTEGUNERA**

Goizez: 9.00-13.30
Arratsaldez: 17.00-20.30

**OSTIRAL, LARUNBAT
ETA JAI BEZPERETAN**

Goizeko 9.00etatik
iluntzeko 21.00ak arte

**ERREKADUAK ETXERA
ERAMANGO DIZKIZUGU**

Astelehenetik larunbatera, 125
pzta.ren truke, gutxienez 5.000
pzta.ko erosketa egiteagatik

Bideberri z/g BERGARA ☎ 76 28 47